

JAENGO KARTZELA

Irastorzak Jaengo kartzelan igaro zituen sei urteetatik bost bakarrik egon zen, eta bitan eraso zioten funtzionarioek

KALEKO BABESA

Herriko jende gaztearen bisitak jasotzeak asko poztu du Irastorza, «harrobia badagoela ikusten duelako»

du eraginik familian ere. «Nik hitz batean definitzeko 'beldurra' esango nuke. Azken bi urteetan kirioak dantzan joaten naiz bidaletan, baleriana hartuta. Nik asko bidaiatu dut, eta lehen ez zitzaidan hori gertatzen, baina errepidean gauza asko ikusten dira».

Hala ere, presoak ikusteko go-goak zailtasun horiek guztiak gainditzen laguntzen duela dio. «Ilusio handiarekin joaten gara. Itzuli, berriz, triste, han uzten dugulako, eta hainbesteko bidaiaren ondoren bisita berehala amaitzen delako». Duela bi urte eta erdi, gainera, alaba bat izan zuten, Nerea, eta horrek ilusioa «areagotu» du. «Eugenio zoratuta dago alabatxoarekin. Bera-rekin joan behar dudak bakoi-tzean oso urduri jartzen da».

Gurasoen erabateko babesa

Irastorzari gurasoek eman dioten babesa ere aipatu du Jauregik. «Bidaiek gero eta gogorra-goak dira guztiontzat, urteak ez baitira alferrik pasatzen, baina gurasoak lehenengo egunetik izan dira berarekin; babes osoa eman diote, beti, eta hori oso garrantzitsua da».

Kaleko babesa eta mobilizazioak ere garrantzitsuak direla deritzo. Urte asko daramatzaten presoek, gazteek baino bisita gutxiago izan ohi dituztela dio Jauregik. «Baina orain Eugenioren jende gaztea ere joaten zaio bisitan, eta horrek asko poztu du, harrobia badagoela ikusten duelako. Bera kartzelatu zutenean jaio ez zen jendea joan izan zaio bisitara». Izan ere, Irastorzak 44 urte beteko ditu aurten, eta 22 zituen preso sartu zutenean. «Berak esan ohi duen bezala: bizitza erdia darma espetxean».

Jaendik atera zutenean Espetxe Zuzendaritzak 2003rako jarria zion irteera data, baina orain 2005era atzeratu diote. «Egiten dituzten mobilizazioengatik zigortzen dituzte eta luditzeak kendu. Baina beraiek argi dute militanteak direla eta protestak beharrezkoak direla, eta ez dira joko horretan sartzen».

ITZIAR GALARDI EUSKAL PRESOK OHIA



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

«Bizi erdia preso egin arren, bere gogorrean bizipen aberasgarriak izan ditut»

Axun Erribengoa | OIARTZUN

Itziar Galardi Sagardia Oiarzungo presoak joan den astean geratu zen aske 20 urteren ostean. Espetxean denbora gehien egin duen emakumea izaki, Irastorzaren kasuaz eta bere espetxealdiaz aritu zaigu.

■ **Nolakoa izan da iritsiera?**

Oso maitatua sentitu naiz. Banekien jendea egongo zela zain, baina ez nuen uste hainbesterako izango zenik.

■ **Presoen kolektiboak izan dituen fase guztiak ezagutu dituzu. Baten bat nabarmenduko zenuke?**

1989an sakabanaketa hasi zeneko garaia aipatuko nuke.

Orokorrean garairik gogorre-na izan zela uste dut, eta neurtzat ere bai. Komunatik atera ninduten eta Martutenera ekarri; Euskal Herrira, baina niretzat kartzelaldirik gogorrena eta basatierna Martutenen jasan nuen.

■ **Zergatik?**

Saio bat egin zuten zenbait presorekin, ni tartean, damu-razteko. Jasan nuen presioa oso gogorra izan zen. Gainera, ordura arte taldeka egon ginen. Bat-batean etorri zen haustura, eta Martutenen 22 ordutako segurtasun neurriekin. Hura gainditu izanak poztasuna ematen dit.

■ **Kartzelak gizonezkoentzat prestatuak daudela esaten da.**

Egia biribila da hori. Ni azken urteetan Logroñon egon naiz, eta adibide gisa: espetxean kiroldegi bat dago, bakarra guztiontzat. Bada, nik bi urte eta erdian ez dut lortu joatea. Kartzelari falta, hezitailerik ez zegoela... aitzakia pila jarri digute, nahiz gizonezkoek adina eskubide izan joateko.

■ **Sakabanatzea ere gehiago nozitzen dute emakumeek?**

Kolektiboan mutilak gehiago izanik, sakabanatuak egonik ere elkarrekin egoteko aukera gehiago izan dute. Emakumeak, berriz, gutxiago garelako, ia beti bakarka jarri gaituzte. Bakartzea gogorrenetarikoa da. Joxepa Ernagak 12 urte daramatza Puerton bakarturik. Eta bera bezala kide ugari, bai mutilak eta bai emakumeak. Egoera horietan, gainera, kartzelariak jarrera probokatzailerak erakusten dute, indefentsio handia sortzen baita. Egoera horiek amaitu behar dira, jasangaitzak baitira.

■ **Irastorza presoarekin bi parekotasun, behintzat, badituzu: denbora gehien preso egin duen emakumea izatea da bat.**

Beno, konpromisoa hartzean onartuta dituzu ondorioak. Orain niri egokitu zait, baina egokituko zaie gehiagori ere.

■ **Bestea da zuk ere bizitzaren erdia pasatu duzula preso.**

Denbora asko da, noski. Nik badut sentsazioa bizitza erdia han eman dudala, baina gustura sentitzen naiz egin dudak bizitzarekin. Nahiz eta kartzelan egon, eta gabezia eta hutsuneak handiak izan, momentua bizitzen saiatu naiz. Denbora galdu izanaren sentsazioak galdetzen didate sarri, baina ez dut halakorik sentitzen. Egoera jakin batzuetan, baina bizi egin naiz. Bere gogorrean, oso bizipen aberasgarriak izan dira.

■ **Gero eta gehiago dira zigorra osorik beteta ateratzen diren presoak.**

Hala da, baina Espainiako Es-

«Martuteneko kartzelaldia izan zen bortitzena, damuarazten saiatu zirelako»

tatuaren estrategian kokatuko nuke joera hori. Ikusten da unearen arabera neurriak gogortu egiten direla. Arlo guztietan ikusten da, baita espetxean ere.

■ **Irastorzaren kasuan, adibidez, irteera data atzeratu egin diote. Zergatik gertatzen dira horrelakoak?**

Hori beste xantaia mota bat da. Preso kide bat jipoitzen badute, guk eskubidea dugu protesta egiteko, baina egiten badugu, zigortu egiten gaituzte, luditzeak kenduz eta abar. Eta ondorioz irteera data atzeratzen da. Xantaia besterik ez da, protesta bat egitea gure eskubidea den arren.

■ **Eta protesta horiek beharrezkoak dira?**

Oso beharrezkoak. Militante garen heinean Euskal Herrian gertatzen diren zenbait gertakien inguruan guk ere gure erantzuna eman behar dugu, batetik. Bestetik, bizi-baldintzen aldeko borrokaldiak daude, urraketak egunero gertatzen baitira. Adibide bat: legeak dio astean bost dei egin ditzakegula, baina praktikan ukatu egiten dizkigute. Logroñon, adibidez, bi ematen dizkigute hilabetea. Epaitegira jo, Probintzia Auzitegiraino iritsi eta, hala ere, legea hanka tartetik pasatzen dute.

■ **Agintarien aldetik zer jarriko izango duzu presoaren auzia konpontzeko?**

Presoena konpontzea baliagarria litzateke gatazkaren konpontzerako, baina zoritxarrez urrutia ikusten dut. Triste da Ibarretxeren jarrera eta Jaurilaritzan dauden alderdi abertzaleena. Mingarria da ikustea ez dutela aintzat hartzen kolektiboaren egoera larria, batez ere senideei begira. Horren inguruan oso gutxi egiten dute, hitz politikak baino ez.

Tradebi

EB Traducciones Itzulpenak SL

ITZULPENETAN ZURE AUKERA

Hizkuntz guztiak
Teknikoa
Legala
Zinpekora
Presazkoa
Kalitatea ziurtatua

T 94 447 41 15 - F 94 447 13 87 - Email tradebi@sarenet.es



Eros ezazu urtebete interesik gabe J. Bengoa

Bulebarreko arkupeak, 20 DONOSTIA
Mamut musika zentroa OIARTZUN